



## **ALKATETZAREN MEMORIA: 2018KO AURREKONTUA.**

Dokumentu hau 2018ko Aurrekontu Proiektuaren edukiaren azalpen-testu laburtua da eta, 31.366.142,31 euroko zenbatekoarekin, sarrerren eta gastuen arteko orekaren aurrikuspena islatzen du. 2017ko jardunaldiarekin erkatuta, aurrekontuaren kopurua guztira % 10 jaitsi da. Jaitsiera horren arrazoibidea gastu arruntaren kudeaketan erabilitako zuhurtasunean datza. Kontu-hartzaitzak sarritan adierazi duen bezala, beharrezkoa da doiketak egitea 2. Kapitulan nahiz 4. Kapitulan, biak gastu arruntanak.

Gastuari aurre egiteko asmo hori betetzeko ez da behar bakarrik Aurrekontuen proiektu honetan ondo islatuta geratu den borondatea eta erabakimena: udal langileen konpromisoa ere behar da, beti egin izan duten bezala, zerbitzu publikoak behar den kalitatearekin, eraginkortasunarekin eta efikaziarekin eskaintzen jarraitzeko konpromisoa, alegia.

Hala ere, ildo nagusiak aztertzen hasi baino lehen, —gure administrazioaren gastua eta sarrerren portaera dakartzaten ildoak— komenigarria da aurretiazko zehaztapen batzuk egitea, zehaztapenok dokumentua hobeto ulertzen lagunduko baitigute.

Aurrekontu-proiektua egiteko orduan —eta, oraingo kasu honetan, ezin da beste era batera izan— Gobernu-taldeak iturri askotara jo behar izaten du Hiriak dituen premiei erantzun bat eman ahal izateko.

Hauexek ditugu gure iturri horietako batzuk: Eibarko PSE-EEK udal hauteskundeetarako aurkeztu zuen 2015-2019 hauteskunde-programa, Agintaldiko Plan bilakatua; Hiriaren Plan Estrategikoa; Kirolaren Plan Estrategikoa; Mugikortasun Plana; Garapen Ekonomikoko arloaren Gida Plana; herritarren ekarpenak, bai auzoetako bileretan egindakoak, bai beste prozesu edo parte-hartze ekimenetatik sortutakoak. Gure eguneroko lanean beti esku artean dauzkagun agiriak eta prozedurak izanik, Aurrekontuaren zirriborroa egiteko orduan ere, oinarri behar dute izan.

Nahitaezkozat jotzen dut proiektuaren inguruan udal talde politikoekin egindako negoziazioak berariaz aipatzea eta proiektuari egin dioten ekarpena funtsezkoa izan dela esatea.

Jakitun gara gehiengo nahiko baten akordioa behar dugula Aurrekontuen Proiektu hau aurrera aterako bada. Horretarako, gobernu-taldeak dituen bozkei bozka bat gehitzea nahikoa izango litzateke, eta jakin badakigu dokumentuak zenbat eta babes gehiago eduki, orduan eta errazago izango duela jardunaldian zehar egingo duen bidea; beraz, hitzarmenaren eta negoziazioaren alde beti erakutsi izan dugun jokabide horretatik abiatuta, Dokumentuari ahalik eta babes gehien ematen ahaleginduko gara. Horregatik guztiagatik, prozesu honen balorazioa dokumentu edo agiri honen amaiera aldean jaso da.



Aipatu nahiko nuke baita 1.0300.601.07.153.20 “Errebal” gastu-partida, 1.837.936,26 eurokoa. Zenbateko hori obra egiten hasi zenean Udal Osoko bilkurak adostu zuen urte askotako gastu-konpromiso hartatik dator, eta agiri honetan hori jaso beharra dago, legeak hala egiteko agintzen digulako. Aurrekontuen zirriborroa egin eta horren inguruko hausnarketari ekin ondoren gobernu-taldeak erabaki zail bat hartu behar izan zuen, erabaki latza, baina beharrezkoa: adjudikazio-kontratua aldebakarreko erabakiz mozteko prozesuari ekitea, enpresa adjudikazioduna, Dragados y Construcciones, ez zelako kontratua betetzen ari.

Horixe zen kontratu-legeria betearazteko har zitekeen erabaki bakarra, baina, batik bat, Hiriaren interes orokorraren alde egitekoa. Eta gobernu-talde hau inoiz ez da kokiltzen ondasun preziatu bi hauek daudenean jokoan: Legea eta gure Hiria.

Prozesua zabalik dago eta bere epeak betetzen joan behar du; horregatik, oso litekeena da proiektu honetako partidek aldaketak izatea, harik eta obra amaitzeko epeen egutegia eta egutegi ekonomiko berria zehaztu arte.

Izan ere, konpromiso hori ere saihetsezina da: Errebaleko proiektua amaituko da, eta, berandu baino lehen, hor izango dugu Hiriaren zerbitzura jarritako azpiegitura balioanizduna, herritarrek eta Udalak elkarrekin egindako hausnarketaren fruitu.

Beste urte batzuetan ez bezala, jardunaldi honetan, Alkatzaren Memoria beste era batera egituratuko da, sarrerak eta gastuak modu orokorrago batean aztertuta eta jarduketako-ildo nabarmenenak azpimarratuta, teknikoki, ildo bakoitzari dagokion kapitulua edo funtzionala zein delarik ere.

## **SARRERETAKO KAPITULUEN EGOERA**

Udal kontu-hartzaitzak emandako gomendioek Ordenantza Fiskalen bitartez — urte akaberan onetsitakoak— diru-sarrerak handitzeko premia aipatzen bazuten ere, Udal Osoko bilkurak ordenantzak izozteko erabakia hartu zuen. Ez dago zalantzarik: gomendio teknikoek jardunaldi honetan beste Plan ekonomiko-finantzario berri bat egin beharrik ez izatea zuten xede, baina Udal Osoko bilkuraren iritziz, krisialdiak oraindik ere ondorio latzak dakarkie gizartearen hainbat sektoreri, eta gure erakundearen finantza-osasuna ona denez, politikoki, tasak izoztea zen erabakirik egokiena eta bidezkoena.

Erabaki horren ondorioz, I eta III Kapituluak ez dute ia aldaketarik izan. I Kapituluak Zuzeneko Zergak, OHZ, Ibilgailuen Zerga, EJZ eta Plusbalioa hartzen ditu bere baitan, duela gutxi emandako epaiek azken zerga horren funtzionamendua aldatu dutelako, beraz, errealitate berri horretara egokitu beharra daukagu.

Kapitulu 2 horietan izango den diru-bilketaren aurreikuspena 9,5 milioi euro ingurukoa da, aurrekontu-zenbateko osoaren % 30. Beraz, urtero bezala, Transferentzia Arrunten IV. Kapituluak izango da —eta, batik bat, Udalak Finantzatzeko Foru Funtzaren bidez Gipuzkoako Foru Aldunditik iritsiko den diru-ekarpena— hiriko diru-sarreraren egoerari zenbateko handiena emango diona.

2018an 18.115.896 euro etorriko dira, beraz, 2017ko ekitaldiarekin konparatuta portzentaje-igoera handia. Horrek erakusten du Gipuzkoako ekonomia hazkundearen bidetik doala, etengabe eta urratsez urrats. Albiste on horrek, Udalari egiten zaion diru-ekarpena handitzeaz gain, ekonomia sortzen du lurralde honetan, aberastasuna dakar, eta horrekin batera, enplegua: gure kezka nagusienetako bat.



Horrela, Udalak Finantzatzeko Foru Funtza IV. Kapitulu honek dituen diru-sarreraren % 80tik gorakoa da; krediturik izan ezean, diru-sarrera guztien % 60, edo diru-sarrera guztien % 57 termino absolutuetan.

Azkenik, argitu egin behar da zergatik den beharrezkoa Finantza Pasiboen figura Dokumentuan jasotzea, IX. Kapitulu jasotzea, alegia. Kontzeptu hori beharrezkoa da aurrekontua sarreretan nahiz gastuetan orekatu ahal izateko, Udalari, behar adina baliabide eduki arren, aurrekontu-teknikak eta lege-esparruak ez diotelako uzten baliabide horietaz baliatzen dokumentua egitean. Baina, 2018an, ziur aski, ez da behar izango kreditu-eragiketa hori kontratatzea, eta hori esateko aurreko jardunaldietara jotzen dut.

### **GASTU KAPITULUAREN EGOERA**

Aurrekontuaren teknikak Dokumentua Kapitulu eta Funtzionaletan egituratzera behartzen du eta, batzuetan, terminologia teknikoa erabiltzen denez, zaila izaten da gastuarekin lotu nahi den helburua eta xedea ulertaraztea. Horregatik, Memoria hau egitean, bidezkoagotzat jo da gastu-ahaleginak zutabe edo ildo estrategikoen arabera biltzea, 2018rako Aurrekontuen zirriborro honekin lotu nahi diren ahaleginak eta konpromisoak ikusaraziz.

Agiriaren sarreran aurreratu dugun bezala, asko dira udal-kudeaketaren iturriak, eta horrela behar du izan, betiere, bizi eta lan egiteko herria izan dadin, Eibar hobeago baten alde lanean arituz eta kudeaketa-esparru bakoitzean herritarrek dauzkaten premiei erantzunez. Arrazoi horiengatik, honako Arlo edo Helburu hauek dauzkagu lehenetsunez.

### **EKONOMIA- ETA ENPRESA-GARAPENA, BERRIKUNTZA ETA ENPLEGUA**

2008az geroztik bizi izandako krisialdiaren ondorioz, gizartearen kezka handienetako bat eta, nola ez, erakundeena, estrategiak eta politika ekonomikoak bilatzea izan da: krisi-testuinguru horretatik urruntzen, hazten, enplegua sortzen eta gure ingurune ekonomikoaren baldintzak hobetzen utziko duten estrategiak eta politikak bilatzea.

Zalantzarik gabe, udal ekimenaren ikuspegitik ez da erraza izaten eskumena eta erantzukizuna kontzeptuak mugatzea.

Erakunde bakoitzak dituen betekizunak garatzeko dauzkan eskumenen esparru horren barruan, eskumen horiek gehienak Udalaz gaindiko erakundeen eskuetan daude, erakunde horiek direlako —Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundia eta, Estatuko Gobernuak— eragin beharko luketenak garapen ekonomikoaren esparruan, prestakuntzan, enpleguan, berrikuntzan eta industria-alorreko politiketan.



Baina Udaletik erantzukizun itzela dugu gure herritarren aurrean. Erantzukizun hori geure gain hartu eta proaktiboki egiten diogu aurre. Horretarako sortu genuen Garapen Ekonomikoko Arloa udal antolamenduaren egitura barruan. Arlo horri giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta estrategikoak eman nahi dizkiogu honako esparru hauetan dinamikak ezartzeko: industrian, merkataritzan, prestakuntzan, berrikuntzan, ekintzailetzan eta azpiegiturretan.

Eta, aldi berean, mugitzen garen ingurune ekonomiko hau hobeto bidean jartzeko helburu zehatz hori lortzeko eta beste erakunde batzuk animatu eta laguntzeko, erramintak emango dizkiegu sektore ekonomikoari. Horrela, ekosistema produktibo bat sortuko dugu, zeinak gure enpresak hobetzen eta beste enpresa batzuentzako erakargarri izaten lagunduko duen, eta, denon artean, aberastasuna sortu, horrek eragin zuzena izango baitu enplegu gehiago eta hobea sortzen.

Jarduketa-eremu hori dugu langai eta kezka, eta, hain zuzen ere, horrexegatik du udal aurrekontuan horrelako presentzia eta protagonismo ezberria gabekoa.

Lehenxeago esan dugun moduan, Dokumentuaren egiturak batzuetan zaildu egiten du helburu horrekin lotutako partida ekonomikoak lokalizatzeko lana; beraz, zaildu egiten du kuantifikazio zehatza.

Eremu honetan, besteak beste, partida funtzional hauek dauzkagu: "Enplegua sustatzea" 570.979 eurokoa; "Oinarritzko Lanbide Heziketaren Udal Institutua", 312.321,15 eurokoa; edo "Enpresa Garapena eta Berrikuntza" 1.233.985,80 eurokoa. Horiexek dira lan-eremu honetako egiteko handienak: 2,1 milioi eurotik gorako konpromisoa Toki-administrazioetik bertatik herriaren egoera ekonomiko hobetzen laguntzeko.

Gorakada etengabeko apustua: "Enpresa Garapena eta Berrikuntza" partida funtzional garrantzitsuenak joan zen urtean baino % 20 gehiago izango du. Eta udal taldeekin izan den zuzenketa-negoiazioaren emaitza baloratzen dugunean ikusiko dugun bezala, helburu partekatu horrek oraindik igoera handiagoa izango du.

Konpromiso horren barruan hainbat ekimen ditugu, esate baterako, honako hauek: Pymeei zuzendutako inbertsio-programak; erronka teknologikoak; Ekingunerekin elkarlanean aritzea; Toki Garapena biziberritzeko Planak; merkataritza alorraren alde egiteko ekimenak; Toribio Echevarria Sarien antolaketa konpartitua; sektore ekonomikoak bultzatzeko azokak antolatzea; ekintzaileei laguntzeko programak; enplegarritasuna eta kontratazioa hobetzeko ekintzak; prestakuntza eskaintzea lanik ez duen pertsoneri... Ekimen-multzo koherenteak, elkarri lotutakoak eta elkarren artean zerikusia dutenak, elkarlanerakoak, asmo hauek xede eta aldarri: jarduketa-alderdi askotatik arituta, hobera egin dezala herriko ekonomikoak; sor daitezela lanpostu gehiago; eta presta ditzagun gure herriko langabeak lanpostu horietarako.



## GIZARTE-EKINTZA

Azken helburua hauxe baino ez da: edozein pertsona gauza izatea bere baliabide propioekin bere bizi-proiektua garatzeko, kanpoko tutelarik eta laguntzarik behar izateke. Errealitatea, ostera, bestelakoa da oso, eta egin beharreko bidea hori bada ere, askok eta askok ezingo diote segitu bide horri eta, beren inguruabar pertsonalak tarteko, laguntza, babeseta eta sostengua behar izango dute, bizi izatea tokatu zaigun gizarte honetan bizimodu duin eta erabat integratua izan ahal izateko.

Horregatik, Administrazioan, eta kasu honetan, Udal honetan, guk geuk erakutsi behar dugu gizarte-ekintza horrekiko sentiberatasun handiena, kontzientziatuena eta konprometituena neurri-, ekimen- eta kudeaketa-multzo horretan; izan ere, ekimen-multzo horri esker, bere inguruabar pertsonalengatik bizi-kalitatea lortzerik izan ez duen pertsona orok zerbitzuetara iristeko modua izango baitu, gizarte honek duintzat jo dituen estandar horietara heltzeko laguntza.

Estatuko Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Gerenteen Elkarteak maila benetan altuan jarri gaitu Gizarte Alorrean biztanleko gehien inbertitzen duen udalerritzat jota. Hori alde batera utzita, esan behar da Udalaren konpromisoa garbia dela, eta gehiago oraindik: ausartuko nintzateke esatera ihes egiten duela konfrontazio politikotik; badakigu-eta gure ekintzaren ardatz nagusiak pertsonak direla, eta gure ahalegin guztia pertsonengan oinarritzen dela.

Asko dira gizarte-babesaren esparruko ekintza-arloak. Agian, Gizarte Larrialdietako Laguntzak dira nabarmenenak, garrantziagatik, eragin zuzenagatik eta medioetan isla handia dutelako. Beti eutsi diogu iritzi berberari laguntza horiek hizpide izan ditugunean. Aurrekontuan islatzen dena Eusko Jaurlaritzaren diru-ekarpenarekin dago zeharo lotuta. Hala ere, gure konpromisoa beti izan da —eta hala izaten segituko du— hau: zuzkidura hori ez bada heltzen gizarte-premiak betetzera, Udalak berak osatuko du bere baliabide propioekin. Jardunaldi honetan 2017an baino % 25 gehiago jarri dugu, baina esperientziak askotan erakutsi izan digun bezala, urtean zehar, ziur aski, diru gehiago jarri behar izango da, eta hala balitz, diru gehiago jarriko dugu.

Esan dudanari tiraka, Udaletik gizarte-geruza asko eta askotan jarduten da: ebaluazioa, informazioa eta laguntza babesgabetasun egoeretan; aniztasun kulturala eta immigrazioa; genero-berdintasunerako ekintzak; zentro sozialekin aritzea edo Garapenerako Laguntzak ematea eta GKEkin elkarlanean aritzea. Horiek dira garatuko diren ekintzetako batzuk 3.250.000 eurotik gora hartzen duen aurrekontu sektorial horrekin; joan zen urtean baino % 10 gehiago. Eta aipamen berezia merezi du pertsona nagusiei, herriko edatuei, eskaintzen diegun arretak, bakarrik bizi direnekiko edo/eta zainketa bereziak dutenekiko dugun esanbidezko konpromiso horrek.



## BIZI-KALITATEA

Gestore publiko batek ez lituzke inoiz ahaztu behar hiru helburu hauek: bertan bizi direnek beren bizitza profesionala herrian gara dezaten lan egitea; babes gutxien dutenei laguntzeko prest dagoen hiri izan dadin lan egitea; eta, azkenik, bizilekua herrian izatea erabaki dutenek ondo bizi daitezen hiri-kalitatea eskaintzeko lan egitea.

Gobernu-taldea gure herriko hiri-inguruneak hobetzen dabil, urtero-urtero, etengabe. Ez dago zalantzarik: herritarren eskakizunak aldatu egin dira, eta, gaur egun, irisgarritasuna, gunen libreak, oinezkoaren segurtasuna, jasangarritasuna eta zerbitzu publikoen eskaintza Eibar etengabe hobetzeko estrategien parte dira. Udalak, urtero, zenbateko handi bat jartzen du hiriaren eraldaketan inbertitzeko eta esandako behar horiei erantzuteko. Urte honetan, 5,5 milioi euro inguru dauzkagu premia horietarako, eta berariazko konpromisoa ere hartua dugu: egokitasun-irizpideek hala eskatuta, proiekturen bat gauzatzeko zenbateko hori gehitzeko premia balego, behar diren bitartekoak jarriko dira zenbateko hori gehitzeko.

Hala ere, bide hori ez da Udalak bakarrean egin beharreko bidea. Gainerako administrazio publikoek ere gure prozesu hori ulertzen dutelakoan gaude eta, dituzten eskumenez baliatuta, eraldaketa hau bultzatzeko ekarpenak egingo dituztelakoan gaude. Horrela egin du Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza Sailaren eskariz, Txonta berroneratzeko edo berpizteko. Eta ekimen pribatuak ere lagunduko du horretan aurrera egiten, hirigintza-desarrollo batzuetan nahiz norbanakoen kasuan, bakoitza bere esparrutik ari dela.

Hasieran argitu dugun bezala, kontratua ez betetzeagatik enpresa adjudikaziodunarekin geneukan kontratua mozteko hartu den erabaki horren prozesuak gerora ekarriko digunaren zer horren jiran eta legez egingo den lizitazio berriaren arabera hartuko da Errebali buruzko aurrekontu-konpromisoa.

Horregatik, Aurrekontuaren zirriborroan jasotakoa da derrigorrean islatu behar dena, baina proiektu hori burutzeko konpromiso irmo eta ukazina tartean dela, jardunaldiaren zehar hori guztia administrazio-prozeduraren errealitatera egokituko da.

Oraingoan ere, irisgarritasunak aurrekontuaren zati handi bat behar du: 1.300.000 euro. Ziur aski, urtean zehar gehiago beharko da Jardíñeta, Tiburtzio Anitua, Karlos Elgezua, Ubitxa-San Kristobal, Mekola, Barrena edo beste alde batzuetako irisgarritasuna hobetzeko.

Hiri-hobetze ekintza hauetan beti herritarrak hartu dira kontuan, herritarrak direlako hiriaren egunerokotasun horretan bizi direnak eta herrian egon daitezkeen premiak detektatu eta horien berri Udalari ondoen helaraz diezaioketenak. Horretarako, aurren, 800.000 euroko partida bat jarri dugu, parte-hartze prozesuen bitartez, herritarrek hirigune bakoitzean zernolako ekintzak nahi dituzten jakiteko.

Halaber, inbertsioen kapitulu honetan 1,2 milioi gora hartzen dute Unbeko zelaietako belar artifizialaren aldaketak, ikastetxeetako hobekuntzek, energia-aurrezpenerako neurriak, baserri-auzoetako hobekuntzek, obra txikiek eta hiri-ekipamenduak.



Hala ere, hiri-kalitatea ez da inbertsio hutsez lortzen. Hiri-mantentze lanean esfortzu handia egin behar da, eta, noski, inoiz ez gara eskas eta urri ibili hiri-mantentze eraginkorra eta eragingarria izateko. 2018an ia 5 milioi euro bideratuko ditugu helburu horretara: hor daude sartuta kale-garbiketa, hiri-altzarien mantentze-lana, kaleen argiteria, parkeak eta lorategiak eta udal eraikin guztiak.

Ukaezina da hiria eraldatzeko konpromisoa. Dagoeneko, gure herriaren parte da ahalegin honen emaitza, modu ezin gardenagoan. Urteak daramatzagu konpromiso horretan tematuta; sinetsita gaude hori dela bide egokia. Ez dago dudarik: inplikazio publikoak eta elkarlan publiko-pribatuak biek ala biek lagunduko dute helburu hori guztion agendaren parte izaten.

## **BESTE ARLO AZPIMARRAGARRI BATZUK**

Hasieran esan dudan bezala, Memoria honen hausnarketa Udal honen kudeaketan oinarritzkoak diren hiru zutabe hauetan funtsatu nahi izan dut: Garapen Ekonomikoa, Gizarte Ekintza eta Hiri Kalitatea. Baina horiek baino askoz gehiago dira Udal honetako eguneroko zeregin horretan egiten diren ekintzak, eta ekintzok gabe ez lirateke garbi ikusiko herriaren aldeko konpromisoak eta herrian egiten diren ahaleginak beren osotasunean.

Esate baterako, Kultura Alorra eta horrek duen eduki osoa. Coliseo Antzokia, Portalea, Museoa, Musika, Antzerki Jardunaldiak, Liburutegia, Jaiak eta beste hainbat eta hainbat jarduera dauzkagu eta 2,5 milioi euro inguru jartzen ditugu horretan, herriko elkarteekin elkarlanean arituta, Kultura izan dadin gure gizartearen sozializazio-, integrazio- eta hazkunde-erraminta.

Euskarak, Ingurumenak eta Gazteriak aurrekontuan 1,3 milioi euroko partida funtzional zehatzak badituzte ere, beren garrantzia gainerako ekintzetan duten transbertsalitate horretatik datorkie.

Azkenik, azpimarratu behar da Udal honek funtsezko konpromisoa duela Eibarko herritarrekin, eta hori argi eta garbi ikusten da herriko elkarteekiko hartu-emanen, erlazio hori ez delako harreman logistiko hutsera mugatzen, askoz harantzagokoa delako. Alde batetik, gauzak erraztu egiten zaizkie elkarte zibilei antolatu nahi dituzten ekitaldi guztiak errealitate izan daitezen; eta, bestetik, Udalak herriko gizarte-sareari diru-ekarpenak egiten dizkio, hartu-eman horrek hiria hobetu eta biziagotu egiten duelako.

Hartaz, herriko elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzak ditut hizpide: 750.000 eurotik gora emango zaie kirol-entitateei, kultura-erakundeei, auzo-elkarteei, gobernuz kanpoko erakundeei, gizarte-elkarteei, berdintasuna edo euskara sustatzeko beste hainbat elkarteri. Laguntza horiez gain, fatxadak konpontzeko laguntzak, gazteen lokalak legezatzeko edo gazteen emantzipaziorako diru-laguntzak dauzkagu, ia 300.000 eurora helduko direnak.

Beraz, milioi 1 eurotik gora ematen ditugu, Eibarko gizartearekin elkarlanean arituta, hiria ondu eta biziagoa egiteko, aktiboagoa.



## **AURREKONTU-NEGOZIAZIOA UDAL TALDEEKIN**

Azaroaren amaieran, udal taldeei Aurrekontuen zirriborroa entregatu eta azaldu ondoren, zuzenketak aurkezteko aldia ireki zen, abenduaren 28an amaitu zena.

Akordiorik zabalena bilatzea, talde politikoekin negoziatzea akordioa posible delako eta akordioa lortzeko lan egitea, horixe izan da gobernu-taldeak beti erakutsi duen jarrera. Eta hori, arrazoi hauengatik:

- Gurea beti izan da partidu itunzalea. PSE-EEK beti pentsatu izan du akordioa dela elkarbizitzaren gakoa, eta, Udal honetan, beti jokatu dugu horrela.
- Kontuak onartuko direla bermatzeko, gutxienez, beste udal talde baten babesa behar da.

## **EIBARKO EH BILDU**

Aurkeztu dituen zuzenketek 5.700.000 euro inguruko balioa dute, 2017. urtean zuzendutako kopurua hori baino askoz txikiagoa zen, eta orduko hartan akordioa azkeneraino eraman ez bazen ere, hartu-eman ona egon zenez, jarrerak asko gerturatu ziren.

Gure ustez, horrelako zenbatekoa dakarren eskaera batek, hasieratik bertatik, kontuen kontrako jarrera iragarri nahi du; hala ere, azterketa-lan bat egin genuen, eta proposamen batzuk batere zehatzak ez izan arren, eskumen alorreko zalantza batzuk eduki arren, zehaztugabeak edo diru aldetik neurritz kanpokoak izan arren, hartu-emanak izan genituen jarrerak hurbiltzeko. Gure iritziz, erabakia hartua zegoen hasieratik bertatik eta ezin izan da akordiorik hartu.

Eibarko EH-Bilduk aurkeztutako dokumentua, gure ustez, ez zen aurkeztu akordio bat bilatzeko erantzukizunez; hala ere, urtea luzea da, eta noski, beste eszenario batzuk ere sor litezke; beste ekimen batzuk ere sor litezke, akordioa posible egingo dutenak.

## **IRABAZI-GANEMOS EIBAR**

Zuzenketa oso bat eta zuzenketa partzialak aurkeztu ditu, 450.000 eurokoak; 2017an aurkeztutakoen errepikapena ia.

Lehenengo bilera hartan marra gorri bat sortu zen, konponezina, akordioa ezinezko bilakatu duena.





Irabaziren ikuspegitik, Eibarko Udalak pasadizokoentzako aterpetxe bat martxan jartzeko ardura hartu behar du bere gain. Horrela ez bada, ez dago beste ezer negoziatzerik. Gizarte Zerbitzuen Mapak zerbitzu hori eskualdeko zerbitzutzat ezartzen duela ikusarazten saiatu arren; aterpetxearen kokalekua eta hura martxan jartzea eskualdeko udal guztien artean hartutako erabaki bat izan behar dela azaltzen ahalegindu arren; eskualdean, Maparen zerbitzu guztiak —aterpetxe hau barne— ezartzeko lanean ari diren lan-mahai tekniko bat eta beste lan-mahai politiko bat daudela adierazi eta esan arren, mugiezina izan da Irabazi-Ganemos Eibarreren jarrera; beraz, akordioa, ezinezkoa.

### **EIBARKO EAJ-PNV**

EAJ-PNVk 2,6 milioi inguruko zenbatekoa zuten zuzenketa partzialak aurkeztu ditu, eta sarrera eta gastuetako 600.000 euro konpentsatu egiten ziren ondare-salmentarekin; beraz, 2 milioi euro ingurukoa zen aurrekontuaren benetako eragina.

Eibarko EH-Bilduk prozesu honetan eraman duen estrategia 'behin galduta egonez gero, dena galdu dezagun' bezala hartu dugu. Ostera, EAJ-PNVk erantzukizunez eta posibilismoz jokatu du, joan zen urteko estrategia aldatuta, orduko hartan aurkeztu zituen zuzenketak 5 milioitik gorakoak izan baitziren; oraingo honetan, estrategia errealagoa erabili du, lor zitekeen akordioa irudikatzen zuena.

Prozesu luze baten ondoren —agian, denboraren aldetik nahi genukeena baino gehiago luzatu bada ere—, egindakoak merezi izan du, eta akordioa lortu izan da. Negoziazio honetan ere sartu dira PSE-EE udal taldeak berak aurkeztu dituen zuzenketak, akordioan txertatu direnak.

Akordio honek berehalako ondorioa du Aurrekontuan, eta baita lan-konpromiso batzuk ere, jardunaldian zehar zehazten eta burutzen joango direnak.

Aurrekontuari dagokionez, 995.500 euroan gehituko dugu gastua; eta, zenbateko horretatik, 135.000 euro zuzenketa sozialisten inguruan izandako akordioaren emaitza dira, horiek denak Garapen Ekonomikorakoak; eta 860.500 euro jeltzaleen aurrekontuaren transakzioetik edo akordiotik sortuak.

Proposamen horiek hainbat ekimen hartzen dituzte beren gain: hiri-hobekuntzako ekimenetatik hasi (asfaltatze-lanak, aparkalekuak, trafiko-norantzaren aldaketak, umeen jolasguneak, eraginkortasun energetikoa) eta baserri-ingurune hobekuntzetara iritsi arte, izaera ekonomikoagoko beste proposamen batzuk ahazteke: laguntzak ematea enpresa txiki eta ertainei (PYMEak), merkataritzari lagundu, Ekin, Iraun eta Osteko programak indartu, prestakuntza edo Gazteria plana. Asmo eta ekimen horiek guztiak transakzionatu ditu talde sozialistak eta Memoria honetan aipatu dugun zutabeetako bat indartzen dute, sakonago aztertzen joan behar dugun zutabeetako bat.

Azken finean, udal ekintzaren hainbat esparrutan islatuko diren ekimenak eta egitekoak dira, aurkeztutako proiektua aberastu eta sendotzen dutenak, eta 2018ko Kontuei berriazko baietza eman dietenak.



Udal Osoko bilkuran dauden 21 bozka horietatik 15 aldeko bozka duen dokumentua edo agiria aurkeztu ahal izatea albiste benetan ona delakoan nago Eibarko herritarrentzat, agiri honek lan handiko urte bat bermatzen duelako, hiria hobetzen jarraitu ahal izateko eta, orain dela 3 urte, Eibarko herritarren aurrean konpromiso batzuekin aurkeztu ginenean —bete nahi ditugun konpromisoak, beteko ditugunak—, geneuzkan erronka haiei aurre egiten jarraitzeko, udal taldeen ekarpenarekin, oraingo jardunaldi honetan Eibarko EAJ-PNVrekin, aurrekontu-akordio hau dela medio.

Eibarren, 2018ko otsailaren 8an.

ALKATEA

MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL